

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 215. alea - 2017ko otsaila



**M7an galdeketa egingo da!  
"Gutxieneko sinadurak  
lortuta, zurea falta da!"**



**Argazkilaria**  
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: [andersalegi@gmail.com](mailto:andersalegi@gmail.com)

Tlf: 685 703 843



English Academy  
**NORTH STREET ENGLISH**

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba  
[rhorton4@yahoo.es](mailto:rhorton4@yahoo.es)

**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel. faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
[mikeliturgintza@euskalnet.net](mailto:mikeliturgintza@euskalnet.net)  
[www.mikeliturgintza.com](http://www.mikeliturgintza.com)

**A D**

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA- HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Edurne: 669 895 619

[asesoriadeba@asesoriadeba.com](mailto:asesoriadeba@asesoriadeba.com)  
[www.asesoriadeba.com](http://www.asesoriadeba.com)

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127  
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behe 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
[www.atarideba.com](http://www.atarideba.com)

**Lizaso** Lersundi kalea, 21  
**Autozerbitzua** Tlfnoa: 943 19 27 29



Jari zure publizitatea  
Berrietan aldizkarian!

**Zuhatzza**

943 191 383  
[berriekan@zuhatzza.com](mailto:berriekan@zuhatzza.com)




**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA


**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818




**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



**Seven Clovers**  
Irish pub

943 191 295



**Bar LOREA**

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095

# AURKIBIDEA

## 04

### GUTUNAK

“Zein da ate guztiak irekitzen dituen giltza?”;  
“Anes Arrinda haur krosa, apirilaren 1ean”



## 06

### KOLABORAZIOA

“Eguneroko gure negoziaketak.  
365 eguneko martxoaren 8a”



## 09

### ALBISTEAK

Osion ospatuko da Zuhaitz Eguna; ezusteko bisita Debako paduretari



## 12

### LABURRAK

Erorikoak prebenitzeko tailerra burutu da, haur parkeak berritzeko obrak...



## 14

### B. GAZTEA

Jone Gomez eta Elene Molina kirolariei elkarrizketa, inkesta, denbora-pasak...



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)

Elkartearen e-maila:

[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

ARGITARATZAILEA

**Zuhatza**  
euskara elkarteak Deba

LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hekuntza, Hekuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hekuntza Politikarako Salburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

### Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte

### Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:

Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbieta, Mikel Aizpurua, Errima Frustratuen Kluba, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

**Koordinatzailea:** Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:** Erredakzio taldea

**Publizitatea:** Joseba Escudero eta Koldo Aperribai **Tlfnoa:** 943 19 13 83


**Logotipoaren diseinua:** Iñaki Elosua **Maketazioa:** Leire Rubio

**Inprimategia:** Euskalinpri **Tirada:** 1.400 ale

**Lege gordailua:** SS-246-2009 **ISSN** 2171-7656

### OHARRA:

*Berriketan-ek* ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Zein da ate guztiak irekitzen dituen giltza?

Giltza, gakoa, bai objektu desiratua! Zure barneko edo bihotzeko benetako desira zein den baldin badakizu, aurkitu duzu edozein ate irekitzeko giltza.

Desiratzeari utzi eta lanean jar-tzea da gakoa. Beti aurrera, aitzina abiatu naiz 2016ko udazkenean Mendaroko euskara zerbitzuan. Ez dakit arrisku handiegia duen Osakidetzak (edo Gaixokidetzak erran beharko nukeen, Lazkao Txiki bertsolariak erran bezala?) olerkari bat kontratatzen euskara teknikari gisa, baina euskaltzalea eta euskal filologoa naiz gogotsu, eta langintza berri honetan abiatu naiz ilusioz beterik.

Sakelak paper tolestuz beterik ditut idazteko, eta lasai egoteko basalorea dut, basamortuko lurrik emankorrena delako. Miopea naiz eta beharbada hori abantaila olerkari izateko, itsasoa noraino den ikusi ezin badut ere, baina ostertz hori da poesia edo hirugarren espazioa. Esna egotearen eta lo egitearen artean ez bizitza ez heriotza da, hirugarren egoera. Dena gordetzeko afana dut beharrezko balitz bezala letrak atxikitzea.

Libreago naiz orain. Ez ginena ez izateko, ama izateko eta ume bihurtzeko. Libreago naiz maitatzeko ene bihotzeko maite kuttuna, nahiz eta harengandik urruti egon

eta bion artean ozeano bat egon, baina berreraiki nahiko nuke gutarteko zubia eta sendotu. Libreago naiz sentitzeko eta sendatzeko, eta bihotza goxatzeko. Ene barneko kutxa hau ireki eta taupada bakoi-tza entzuteko libre naiz bizirik nagoelako.

Kutxa ireki eta bertako altxorra topatu dut: ispilua. Ispiluan begiratu eta hara! Ate guztiak irekitzen dituen giltza topatu dut: NI NEU.

*Ainara Maya Urroz, Mendaroko ospitaleko euskara teknikaria*

## Apirilaren 1ean egingo da Anes Arrinda haur krosa

Hurrengo apirilaren 1ean, larunbata, izango da XLIX. Anes Arrinda haur krosa. Aurten ere, aurreko urteetako ildoari jarraituz, 5 urtetik 16 urte bitarteko haur eta gazteei zuzenduko zaie parte hartzeko gonbitea. HH eta LHkoen kasuan, adin-ka egingo dituzte lasterketak eta bakoitzak bere zirkuitua izango du. DBHkoen kasuan, ordea, erreleboak egingo dituzte taldean.

Gogorarazi denoi, partaide guz-tien artean hainbat sari zozketatuko direla: museoetarako sarrerak, lote-ak, kirol desberdinetarako sarre-rak... Halaber, partaide guztiek

izango dute mokadutxo bat jateko aukera lasterketaren ondoren.

Aurten ere, partaide bakoitzak egin duen lasterketako kideekin ateratako argazki bat izango du oroigarri. Argazki hori eskolan banatuko zaio ikasle bakoitzari, krosa burutu ondorengo aste horretan.

Korrika datorrenez apirilaren 5ean, krosa izango da motorrak berotzen joateko aitzakietako bat, eta Korrikaren 20. edizioa oso presente egongo da krosaren egun honetan ere.

Lasterketan parte hartzeko, Luzaro eta Mendata eskoletan **izena**

**emateko aukera izango dute mar-txoaren erdialdean.** Beraz, animatu eta parte hartu gure krosean.

Bide batez, nahi duen guztia gonbidatuta dago egunean bertan antolaketan laguntza emateko, beharrezkoa izango dugu eta. Hala izanez gero, idatzi korreo bat [deba-krossa@hotmail.com](mailto:deba-krossa@hotmail.com) helbidera.

Informazio gehiagorako, kontsultatu gure webgunea: <http://anes-sarrindahaurkrossa.weebly.com/anes-arrinda.html>.

*Haur krosetako antolatzaileak*



# IBON URKIA

## BADIRA HOGEITA HAMAZAZPI UDABERRI...

Badira hogeita hamazazpi udaberri inork argazki hau egin zuela. Ez zuen meritu makala kamerari begira zintzo demonio jarri gintuenak. Badu, nolana ere, andereño Garbiñeren esku-hartzerik lorpenak. Garaiotan zituen dohain guztiez baliatu behar, halako bihurri kuadrilla mendean hartzeko, alajaina!

Baditu irudiak egungo ikuspegitik zenbait kontu deigarri. Esaterako, neska eta mutilen arteko proportzioa. Bata halako bi besteak. Nago zertxobait aldatu direla hala-koak gaurkoan.

Itxura soilari erreparatuz, berriz, ezin orrazkerak aipatzeari utzi. Horiek kalparrak batenak baino gehiagorenak. *Flekillo power* erabatekoa, aizu!

Eta zer esan janzkeraren gainean. Behar bezala ikusten ez bada ere, neskatilen erdiak

baino gehiagok soinekoa ala gona. Mutilok, ordea, galtza motzak askok eta bidenabar urratuak belaunburuak zenbaitzuk.



Negu zein udaberriko hilik gorrienak atzean utzita jertse fin samarra, hori bai, azpitik hain ohiko genuen lepo estudun poloa. Haurtzaroan modan genuen, bistan denez, puntadun alkandoraren ertzak jertse gainetik agertzea.

Generamatzan arropen kolore tonua, oro har, itzali kutsukoa izan arren, huraxe besterik ez baitzen, eta okasierako denok ere serio plantak egin arren, ez dut uste gaur egungo haurrak zoriontsuago direnik, sarri besterik gabeko konparatzeak gorrotagarri bihur badaitezke ere.

Halakoxea genuen, bada, gure OHO hirugarren mailako gela.

# Eguneroko gure negoziaketak

## 365 eguneko martxoaren 8a



“Maitasunaren izenean, emakumeek euren “izan behar”-ean, **beren buruengan baino gehiago besteengan pentsatu** behar izaten dute eta, beraz, aitzakiarik gabe babestu “behar” dituzte euren umeak, bikotekideak eta gurasoak. Eta maitasun honen izenean, zein zailak diren etxeko negoziaketak.

**Zer esan nahi digu negoziaketak?** Akordioetara iristeko ahalegina, interes desberdinak eta asmo diferenteak dituzten uneetan. Gizon eta emakumeok geure beharrian sakonenean elkarren antzekoak baldin bagara ere, desberdinak gara horiek asetzeko eran.

Nola negoziatzen ditugu goizetik gauera arteko eginkizunak, ohetik sukaldara, bainugela, haur-zapiak, etxe-garbigeta, etxeko automobila, diru banaketa, atsedeen eta aisi aldiak? Maitasunaren izenean, negoziatu beharra ukatu edo ekiditeak ez ditu konpondu beharrak ezabatzen.

Noiz izaten dira zailago negoziaketak? Ba, etxe barruan, maitasuna tarteko denean, emakumearen maitasun logikan

“onginahia”, “esaneke izate”, “maitasuna”, “joputza”, “elkartasuna eta elkarrekikotasuna”, “altruismo eta emaille-huts” bilakatu direnean.

Bat etorritz gero ez dago negoziatu beharrik; baina, hor daude beti desberdintasunak eta horiekin apurto egiten da maite ditugunekiko kideatasun osoko maitasunaren ilusioa. **Baldintza gabeko maitasun** honetan, negoziaketa maitasun baturari egiten zaion erasotzat hartu ohi da. Maitasunean, negoziaketa ez da izen txarra; elkarren arteko errespetua gehien bermatzen duen alternatiba baizik. Negoziaketa ez da eremu publikoan soilik erabiltzeko baliabidea; etxe barruan erabiltzeak ez ditu harreman pertsonal eta afektiboak gaitzotzen. “Irabaztea” ez da eztabaidatik ahalik eta onurarik handiena ateratzea, baizik eta pertsonak eta harremana sendotzen laguntzea.

Negoziaketan elkartasuna ez da bakoitzari dagozkion eremu eta asmoak baztertzea, eragozpenak eta onurak egoki banatzea baizik. Askotan, ordea, “ezkutuko” egoera gogor, “antzeman ezinezkoetan” bizi gara, aldiro makurtu ohi denaren nortasuna akitzen doala. Kontuz!, arrazoi hauekin:

-“Ez naitaio kontra jarriko, haserretu ez dakidan”.

-“Hobe dut isiltzea, borrokan amaituko dugu bestela”.

-“Nahiago dut gustukoari muzin egin, etxeko harmoniari eusteko”.

**Negoziaketa oro nork bere buruarekin negoziatuz hasten da**

Negoziatzeko, lehenbizi, ez muzin egin norbere interesei. Gogoan izan norberaren interesak besteenak, ume, bikotekide eta gurasoenak bezain garrantzitsuak direla. Nekeza gertatzen da maitasunean nork bere interesak babesteko eskubidea legitimatzea, okerrago oraindik ama-maitasunean; baina, bien arteko akordio eta elkarguneak topatzea da helburua. Bakoitza bere tokiaren jabe izatea, bere gogoko toki, gune laboral, ekonomiko, politikoa, kulturala, zientifikoa eta abarretan egon edo jarduteko eskubidea izatea ez da dekretu bidez lortzen; baina, gune horiek legitimitaturik, geure eskubideez jabetzen garenean, aukera hobeak daude bakoitzak bere interesak eta lekuak babesteko.

Nola lortu eskubide horiek?

-“Emakume izatea” zein egoeratan dagoen gogoan erabiliz. Patriarka giroko gizartean emakume “izan beharra”, “emakume rola” jatorriz balezagotzeko bezala bizi izatea da. Diskriminazio egoeran bizi garela gogoan ez badugu, ezinezkoa da ohiko emakume rola gainditzea.

-Berrikusi geure buruaz geneukan irudia eta itxaropenak, eta geurekin bizi diren eta maite ditugun gizonei buruz geneuzkanak. Eta, hortik abiatuz, harreman era berriak eraikiz geure buruekiko eta ingurukoekiko.

-Bide berrietan barrena ibili beharra daukagula sinetsita, erori eta berriro jaikiz, bide berri horretan aurrera egiteko gertu egonez.

### Bikotekidearekin negoziatzen

"Nire senarra oso laguntzailea da. Sukalde-lana eta haurrekin irtetea gustatzen zaio. Hala ez balitz, izango al nuke nahiko ausardia, negoziatu eta gauzak orekatzeko? Ohartu berri naiz pixoihalak garbitzen dituela; kaka-oihalak, ordea, ez. Nik ez diot hori aintzat hartzen, beste gauza batzuk egiten dituela ikusten baitut, baina... Eta zapi guztiak kaka-oihalak balira?"

Zer gertatzen da senarra, bikotekide oso laguntzailea ez denean?

### Umekin negoziatzen

Hauek izaten dira zailenetakoak. Nork bere burua bere haurrena haina maitatze kontuak, negoziaketak ama gaiztoen jokabidetzat hartzea eraman gaitzake. Ama izateari "neurri gabeko" maitasuna eskatzen zaio; eta "umee, futbol partidua duten bakoitzean, nahi baldin badute nik txofertza egitea... Jainkoari eskatzen diot, ez diezadala eskatu! Ez diezadala eskatu!". Neurrigabetasuna ameskeria da maitasunean.

Inoiz entzun al duzu?:

-Ama, ekar iezadazu jertsea!

-Ezin dut! Sukaldean ari naiz.

-Ez zaizu asko kostako ekartzea! Zer kostatzen zaizu?

Zer kostatzen zaidan!? Ez zait batere kostatzen!

Etxeko guztien neskame izatea kostatzen zait.

**Eskubideak unibertsalak dira, pribilegioak esklusiboak.** Zenbat eta pribilegio gehiago izan gizon batzuek, orduan eta eskubide gutxiago emakume askorentzat, eta alderantziz. **Parekotasuna/ekitateak, benetakoa nahiz subjektiboak maila berean kokatzen ditu aldeak;** bestalde, **matxismoa** emakumeek pairatzen duten **eduki**

**autoritario eta hierarkikoak dituen sistema da;** eta sistema horretatik ez dago libre ez emakume ez gizonik.

**Genero kontzeptua, sexu/generoa,** ez doa soilik emaku-

meentzat bakarrik diren muga sozialak seinatzera, emakumeak eta gizonak barne hartzen ditu. **Genero eremutik pentsatzen hastea ikuspegi askatzaile batetik pentsatzen hastea da, bai emakumeentzat bai gizonezkoentzat.** Gizonaren mendeko emakume "izan behar" horretatik askatzeko borrokak irakitzen die bidea gizoni, indartsu eta menderatzaile "izan behar" horretatik, itogarri izan daitezkeen beren erantzukizunetatik askatzeko.

Askapena, bizitzan beste guztia bezala, ez da doakoa, ekitatearen aldeko gizonen borrokak pribilegiorik gabe geratzea dakar eta, asko horretarako gertu ez badaude ere, pertsona libreen arteko harremana irabazten dute ondorioz. **Elkar askatzeak** agintearen banaketa egokiagoa dakar, emakume nahiz gizon guztiek onartzen ez duten banaketa bada ere, sistema patriarkalaren balio nahastaila onartua daukatelako. Erresistentzia ez da soilik gizonezkoen jarrera, emakume askok ere maitasuna altruismo erara hartzen baitute, elkartasuna eta elkarkidetzat gisara hartu beharrean; eta, emakume "izan beharra" bere gogoko lanbide, profesio, denbora libre, zaletasun eta joerei dagokien neketzat hartzen dute, emazte, ama eta alaba ona dela erakusteko.

Negoziaketak ez dira borrokalekua, ekitatearen eta elkarkidetzaren zerbitzura dagoen baliabidea baizik. Maitasun neurritsuak gizarteko loturen parekotasuna, pribilegioak baino askoz oxigenatzaileagoa dela uste duten pertsonen parte-hartzea behar du. Aukera etikoa da.

Gizadiaren erdiari eragiten dionak beste erdiari ere eragiten dio, nahi ala ez.

Babestu zeure interesak, balio duzu eta.

**"Neure umeen, bikotekidearen eta besteen interesak babesten dituen lehoi emea naiz; baina, neureak babestu behar ditudanean, erbitxo bat naiz". Maitasuna nork bere burua erabat besterentzat, ezere truke, jartzea dela uste izatean datza okerra, berdintasunez maitatzea, altruista izatean ez, baina elkarkidetzan, errespetuan eta askatasunean oinarritua dagoenean.**



Clara Coriaren ideiak (Albizu eta Dorronsororen irakurketa)

## Martxan da Korrika Batzordea

Datorren martxoaren 30ean hasiko da 20. Korrika Otxandion eta Debara sei egun beranduago, apirilaren 5ean (asteazkena) iritsiko da, goizeko 8:35 inguruan. Egun hori buruan, lanean hasita dago herriko elkarte desberdinetako kideek eta beste hainbat norbanakok osatzen duten Korrika Batzordea.

Aldizkari honek argia ikusi orduko, batzordea birritan bildu da eta martxoan beste bi batzar egitea aurrekusi du. Irekia da batzordea, eta edonork har dezake parte; alde horretatik, taldearekin bat egiteko edo ideiarekin bat proposatzeko gonbidapena luzatu nahi dugu beste behin ere. Hurrengo batzarren deialdiak ere laster iragarriko dira oihiko bideetatik, kartelen edota facebook-en bitartez, adibidez.



Hitzordu horietara agertzerik ez dutenek, informazio bila Zuhatza Euskara Elkartera jo dezakete zuzenean (943191383).

Korrikak hasiera-hasieratik aldarrikatu duen bezala, lasterketa erraldoiaren helburuak bete daitezzen guztion ekarpena eta ahalegina dira beharrezkoak. Denon parte-hartzeaz lortuko dugu Euskal Herri euskalduna eta guztion esku eta oinei esker eraman ahal izango dugu euskararen lekuko Otxandiotik Iruñeraino. Ahalegin horretan herritarren laguntza estimatuko da; antolakuntza lanetan parte hartzeko edota ekarpenak egiteko moduak askotariokoak dira, baina beti izango dira ongi etorriak laguntzaile boluntarioak.

*Korrika Batzordea*

## Otxandiotik Iruñera, "Batzuk" lelopean

Martxoaren 30ean Otxandiotik abiatuko da Korrika, eta apirilaren 9an amaituko da Iruñean, eskuz esku joaten den lekukoaren barruko mezua irakurri ondoren.

AEK-k antolatuta, beti bezala, "Batzuk" izango da aurtengo lasterke-

taren leloa, hizkuntza, kultura eta mundu ezberdinek osatzen duten aniztasuna irudikatu nahian. *Bat* eta *zuk* hitzen arteko jolasa da, herritarrak euskarara gonbidatzeko: "Hizkuntzen eta hiztunen berdintasunaren aldeko jaira".

Azalpena Korrikaren zuzendari

Asier Amondok eman zuen: "Hizkuntza, kultura, mundu 'bat' sendotzeko bidean, 'zuk' ere bat egin dezakezu, zeuretik, zeure hizkuntz aberastasuna eta kultur aniztasun unibertsala bizi ditzazun: ikasiz, erabiliz, ahalbidetuz".

## Omenduak: Korrikaren sortzaileak

Korrikaren sortzaileak omenduko dituzte 20. edizioan. Zergatik Korrikaren sortzaileak?

Bada, 1980. urtean jarri zen abian lehendabiziko Korrika eta, geroztik, "euskalgintzaren, euskal kulturaren eta euskararen erreferentzia bihurtu da", AEKren hitzetan.

"Badira 37 urte Korrika jaio zela.

AEK-ko eta AEKtik kanpoko hainbat lagunen ekimenez. 1980ko lehen Korrika hark Euskal Herria euskalduntzea zuen helburu. Oraino ere bere horretan jarraitzen du xede horrek, bizirik, pil-pilean, euskarak oraindik ez duelako egoera normaldua bizi; baina, era berean, AEK-k lekuko hori ez delako geldirik utzi eta, Korrikaz Korrika,

Euskal Herriko txoko guztietara zabaldu nahi izan duelako euskararen aldarria.

Horregatik guztiagatik, 20. Korrikak omendu nahi ditu orain dela 37 urte Korrikaren lekuko eskuz esku abiarazi zuten haiek. Korrikak batu egin gaitu, batu egiten gaitu eta batu egingo gaitu".

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**haizea**  
Estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22. 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik



# Zuhaitz Eguna Osioko zonaldean ospatuko da, martxoaren 12an

Datorren martxoaren 12rako, igandea, Zuhaitz Eguna antolatu dugu. Badira jadanik urte batzuk herritarren laguntzari esker egun berezi hau ospatzen dugula, Debako inguru-nea hobetzen laguntzeko asmoz.

Aurtengo Zuhaitz Eguna Osioko parajeen ospatzea erabaki dugu, mehatxupean dagoen inguru zoragarri honek gordezen dituen balio naturalak ezagutarazteko xedeaz.

Osioko paraje berezi hau Debako birika berdetzat har dai-teke eta antza denez, dokumentu historikoek frogatzen dutenaren arabera, bertan 500 urte baino zaharragoa den basoa kontserbatu da.

Hala eta guztiz ere, eta nahiz eta herritik oso-oso gertu egon, paraje honek gordetzen dituen balioak, hain zuzen desagertze zorian edota arriskuan aurkitzen diren landare eta animalia espezie batzuk, erabat ezezagunak dira herritarren-tzat, baita gure herriko agintarientzat ere.

Hori dela eta, aurtengo hitzordu honen helburua da herri-tarrei Osioko balio natural eta historiko-etnografiko eta arke-ologikoa hurbiltzea.

Horrez gain, egun horretan bertan, "ZURE ZUHAITZA



ADOPTATU" lelopean, hitzordura hurbilduko diren guztiei zuhaitz bana oparitzeko diegu, zuhaitza bere babesean har dezaten eta Deba Berdeago bat sor dezagun guztion artean.

Debanatura elkarte

## Garbiketa lanak eta ezusteko bisita Debako paduretan

Casacampoko paduran garbiketa lanak egin zituzten hainbat herritarrek pasa den otsailaren 12an. Hitzordua aste-bete lehenago egitea zen hasierako asmoa, baina eguraldi txarrak hala behartuta atzeratu egin behar izan zuten.

Urtero-urtero, otsailaren 2an Munduko Hezeguneen Eguna Ramsar Hitzarmena gogorarazten digu; hezeguneen kontserbazioaren inguruan 1971n sinatutako hitzarmena, hain zuzen ere. Hezegunak zaintzea da nazioarteko hitzarmen horren helburua. Alegia, hezeguneez gizaki eta izaki guztien-tzako duten balioaz jabetuta, gune horiek zaintzearen garrantziaz kontzientziaz. Izan ere, bioaniztasun handia dute kostaldeko hezeguneez, ibaien eta itsasoaren arteko guneek. Eta horren adibide ditugu, besteak beste, padurak.

Aipatutako ospakizunarekin bat eginez, aurren ere Debanaturak Casacampon bisita gidatua antolatu zuen -bertako flora eta faunaren berri emateko-. Eta bisitaren ostean garbiketa lanei ekin zieten bertaratutako boluntarioek auzolane-an. Plastikozko hoge bat poltsa eta 80 litroko pare bat kubo ere bete zituzten bildutako zaborrekin. Zonaldea pixka bat garbia-go uztea lortu zuten, beraz, boluntarioek!

Bestetik, Munduko Hezeguneen Eguna gogorarazteko egin ohi diren ekimenen atarian, Debanaturak jakinarazi du Debako paduretan mendebaldeko ur-arratoi bat (*Arvicola sapidus*) ager-tu dela eta albistearekin pozarren dago elkarteak: "Debako itsa-sadarra eta paduretako ekosistemen kalitatea hobetzen eta bio-dibertsitatea berreskuratzen ari dela adierazten baitu".





## M7rako galdera adostuta!

### Orain, sinadurak behar erabaki ahal izateko

Otsailak 11. Zerbait desberdina nabari da goizean-goizetik. Autoak mugiarazi dituzte plazan, udaletxe azpian mahaiaik jarri, *erabakitzena goaz!* Lau hizkuntzetan adierazten duen pankarta balkoi batean, eskenatokia muntatu, musika, jendea irribarrez, euria egin ez dezan desiratuz beste batzuk...

13.30ean hitzordua, jendea hurbiltzen hasi da plazarantz. Bat-batean, 6 lagun igo dira eskenatokira, hurbildu da aurkezlea. 13.50 inguru izango da (Debako puntualitatearen ezaugarri). Aurkezpen lanak bi hizkuntzatan egiten hasi bezain laster, jendea gero eta gehiago hurbiltzen hasi da eskenatokira. Publikoaren artean, koloretako kartulina batzuk ageri dira...

Aurkezpenak amaituta, Ane Iriondo eta Jokin Lasa agertu dira mikroaren aurrera. Orain arte Euskal Herrian eta Deban erabakitze eskubidearen alde egindako ekintzak gogorarazi dizkigute. Publikoan, konplizitate begirada eta irribarre txikiak nabarmendu dira. Lapari izena entzun denean, Lapariren logoa agertu da. Erabakitze eskubidea egikartzeko taldea.

Hizlariak, erabakitze eskubidea ahalduz ariketa gisa aurkeztu digute, denon artean eta denon lanaz aurrera joango dena. Hau esan ostean, iritsi da jendea zain zegoen unea. Zein izango zen bilera ireki bidez adostutako galdera? Batzuek, oso

ongi dakite, galdera erabakitze egin zen deialdira hurbildu baitziren, beste batzuek ere susmoak bai.

**"Nahi al duzu egungo Euskal Herriaren status politikoa aldatu? bai ala ez"** eta

**"Nahi duzu Euskal Estatu independente bat? Bai ala ez"**.

Hizlaria hitz hauek esaten hasi denerako, lehen lerroetan dauden kartulina koloredun horiek, galdera eraiki dute. Kartulinaren jokoari zailtasuna emateko, lehenengo euskaraz osatu dute galdera eta ondoren gaztelera.

*"Gure aurrean ikusi dezakezen galdera bikoitz hori izango da Maiatzaren 7an galdetu nahi duguna"* eta ondoren, *"Galdeketa interesgarri zaigun kopuru bakarra, parte-hartzearen ehunekoarena izango da. Herritarrok erabaki egin nahi dugula, argi eta garbi adieraziko duen bozka kopurua"*.

Maiatzaren 7an, Debarrenako eta Euskal Herriko beste zenbait herrirekin batera egingo dela galdeketa adierazi dute. Eta 16 urtetik gorako debar guztiek izango dutela erabakitze eskubidea adierazi dute.

Hizlariak, erronka txiki bat bota diete jarraian herritarrei: galdeketa parte hartu ahal duten debarren %10ak ez badu galdeketa alde sinatzen, ez dela galdeketa egingo adie-



razi dute. Udaletxe azpian dauden mahaiek zentzua hartu dute orain.

Lanera eta parte hartzera animatuz eta Debabarrenean eta Deban erabaki egingo dugula adieraziz amaitu dute hizlariak.

Aurkezleak, herritarrak argazki erraldoi batean parte hartzera gonbidatu ditu. Publikoaren artean denetik dago; kultur munduko jendea, kirolariak, irakasleak, langileak, atzo eta gaurko zenbait zinegotzi eta alkateak... Guztiak erabakitze eskubidearen alde. 300 bat lagun inguru izango dira hurbildu direnak.

Erabakitze eskubidea egikaritzearen bidean, hurrengo erronka sinadura kopuru ahalik eta handiena batzea izango da. Argazkia atera ondoren, jendea sinadurak biltzeko prest dauden mahaietara hurbildu da. Erabakitze eskubidearen alde beste pausu bat eman da Deban.

Jakin, galdeketa egitearen alde sinatu nahi duen guztiak apirilak 16 arte izango duela aukera. Ostegun eta ostiral arratsaldetan eta larunbat eta igande eguerdian, Foruen plazan.

*Lapari*

*Erabakitze eskubidea egikaritzearen aldeko taldea*

*\*Oharra: aldizkari hau inprentara bidean zela jakinarazi digute herri galdeketa egiteko gutxieneko sinadurak (400) bildu dituztela. Hala ere, sinadura bilketarekin jarraituko dute apirilaren 16a arte, galdeketa ahalik eta babes handiena lor dezan.*

## Debabarrenean 46.500 herritarri eman nahi zaie hitza

2017ko maiatzaren 7an, 16 urtetik gorako 46.500 herritarri emango die hitza Gure Esku Dagok Debabarrenean. Eta galdeketa egin ahal izateko, eskualdean gutxienez 4.400 sinadura bildu beharko dituzte aurrez.


Deba, Itziar, Mutriku, Elgoibar, Soraluze eta Eibarko Gure Esku Dago taldeetako kideek agerraldi bateratua egin zuten orain zenbait aste Eibarren. Bertan azaldu zutenaren arabera, iazko ekainean landutako herri adierazpenetik abiatuta, herri galdeketa olatura igo dira eskualdeko herri gehienak. "Gure Esku Dago Debabarrena herri ekimena abian dago jada. Euskal Herriko beste herri askotan egin den bezalaxe, guk ere herritarron borondatea era demokratikoan gauzatzeko tresna jarri nahi dugu guztion eskura".



## Udal gida berria prestatu du Udalak

2017ko udal gida berria argitaratu du Udalak, Zure Leku S.L. enpresarekin batera. Herriko baliabideak jasozten ditu liburuxkak: zerbitzuen agenda, jatetxe, ostatu, merkataria, profesional, industria, baliabide turistikoak... Argitalpenaren azaleko argazkia Juan Antonio Palacios argazkilaria da.

Gida berria Turismo Bulegoan eskura daiteke, baita euskarri informatikoan ere -[www.deba.eus](http://www.deba.eus)-en-.



## Urtero legez, Santa eskean

San Blas egunaren segidan iritsi zen Santa Ageda bezpera eta aurten ere ez da falta izan ospakizunarekin bat egin duenik. Txistulariak batetik, kantariak bestetik... koplak zaharrek eta ohiko doinuek gogorarazi ziguten otsailean ere badela zer ospatu.



## Errefuxa botatzeko txipdun edukiontzi grisak ezarri dituzte



Mankomunitatea otsailean aritu da errefuxa botatzeko edukiontzi grisak ezarzen -Debako herrigunean dauden zabor-bilketarako gune nagusietan eta Itziarko herrigunean-. Eta edukiontzi grisa ipini duten guneetan kendu egin dituzte orain arte zaborra biltzeko erabili izan diren edukiontzi berdeak.

Udalak ohar baten bitartez gogorarazi du edukiontzi grisak ere txipdunak direla, eta horiek ireki ahal izateko materia organikoaren edukiontzi marroia irekitzeko erabiltzen den txartel bera erabili behar dela.

Mankomunitateak aurreikusitakoaren arabera, martxoan jarriko dituzte mar txan ostalariek eta merkatariek sortzen duten zaborraren bilketa hobetuko duten berrikuntzak.

## Koloretako hariak behar ditu parrokiako Kooperazio Taldeak

Debako Parrokiako Kooperazio Taldeko emakumeek "Hari Solidarioa" izenburuko ekimenean dihardute lanean eta herritarrei kolore eta lodiera ezberdineko hariak eskatu dizkiete, manta artistikoa egin ahal izateko. Manta horiek Aterpe eta Hotzaldi bezalako Caritasen proiektuetara zuzentzen dituzte.



HARI SOLIDARIOA

"Gustura hartuko genituzke baita ere -gaineratu dute- hariz egindako 20x20ko karratuak, elkar josiz mantak osa ditzagun". Kooperazio Taldeko bolondresentzako hariak edota ehundutako karratuak Debako parrokiara eraman daitezke (Ifar kalea 10 helbidera). Informazio gehiagorako, deitu 688 696 805 edo 943 19 14 97 telefono zenbakietara.

**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

## Hogeita hamar bat lagun aritu dira erorikoak prebenitzeko tailerrean

Hogeita hamar bat lagunek parte hartu dute erorketak prebenitzeko tailerrean. Bi saio egin dira otsailean, teoria eta praktika uztartuta, Agirre jauregian.

Osakidetzak azaldu bezala, erorikoak dira lesio eragile nagusiak EAeko 64 urtetik gorako adinekoetan. Datu epidemiologikoen arabera, adin talde horretako pertsonen erdiak gutxienez urtean behin erortzen dira; eta ondorio fisikoak ez ezik, psikologiko eta sozioekonomikoak ere izaten dituzte.

Arazo horren garrantzia kontuan hartuta antolatu da Deban, hain zuzen ere, erorikoei aurrea hartzeko tailerra. Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Kirol departamentuak, Osakidetzako ESI Debarrenak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak elkarlanean antolatutako ekimena da.

Tailerrean, erorikoen zergatiak aipatu dituzte eta horiek saihesteko zer egin daitekeen ere azaldu diete parte-hartzaileei. Bizimodu osasungarria eta ariketa fisikoa egitea zein garrantzitsua den nabarmentzeaz gain, eskuragarri dauden



laguntza teknikoak (telelaguntza) eta faktore estrintsekoak ere (etxeetan kontuan hartzekoak: alfonbrak, zapatila itxiak, kableak, heldulekuak komunean...) izan dituzte hizpide, besteak beste.

## Haur parkeak itxita, berritze lanak direla eta




Zumardiko, Osioko eta Mogel kaleko haur parkeak itxita daude azken asteotan, berritze lanak direla eta. Uste baino beranduago abiatu dituzte lanak, otsailaren hasieran hain zuzen ere, eta Udalak iragarritakoaren arabera, "martxoaren



hasierarako edo erdialderako" egon litezke zabalik birmoldatutako parkeak.

Urbabil 2000 S.L. enpresa bizkaitarra ari da parkeak berritzen. 120.000 euroko kostua du proiektuak.



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



## ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460

E-mail: asketa@telefonica.net

www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9

20850 MENDARO (Gipuzkoa)

**K21**  
KALITATEA  
Enpresa Registrada Nº 2/05/049  
NIVEL 2

2017ko otsaila  
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua

# BERRIKETAN GAZTEA

## Nola bultzatu irakurketa etxean

Irakurketa haurtzaroan sortzen den zaletasuna da. Irakurketak makina bat onura ekartzen du, batez ere umetatik lantzen hasten bada. Bizitzako lehen hamarkadan hartzen du haurrak, hain zuzen, ohitura hori; hamar urte horietan izaten da irakurtzeko plazera eginkizun onartu eta desiratu gisa eskuratzeko aukera. Pedagogoez diote irakurketaz gozatzen ikasi egiten dela eta, horrenbestez, irakatsi egin daitekeela. Horretarako, funtsezkoa da familia. Irakurtzen gurasoek irakatsi behar diete seme-alabei, betiere haurraren izaera, motibazioak, zaletasunak eta interesak kontuan izanda. Etxean irakurketarako interesa eta zaletasuna bultzatzeko, hurrengo dekalogoia eskaintzen dugu:

### 1. Irakurketa aukeratzeko askatasuna.

Haurrak ahalmen kritikoa du eta hark bere gustuko liburua aukeratzeko askatasuna eduki behar du. Inposatzea bide txarra da.

### 2. Ez behartu irakurtzera.

Inoiz ez zaio behartu edo presionatu behar irakur dezan. Jarduera guztiek bezala, irakurketak konstantzia behar du. Sekula ez da irakurtzera behartu behar, baina eguneroko kontu bihurtu behar da. Aisialdiko zafi bihurtzea da kontua, telebista ikustea eta jolas egitea diren bezala. Txiki-txikitik aitzak eta amak izango dute zuzenean funtzio hori.

### 3. Irakurketa joko bat izango balitz bezala hartzea.



Irakurketa bultzatzeko orduan, oztopo bat egon da beti: liburuak beti mundu akademikoarekin erlazionatuta egon direla. Horregatik, komenigarria da umeari liburuen alde adeitsua eta ludikoa erakustea.

### 4. Zaletasunetara egokitu.

Edozer bihur daiteke irakurketara hurbiltzeko aitzaki: gaurkotasuneko gai bat, atentzioa ematen dieten gertaerak edo oso gustuko izan duten film bat, aukera paregabea dira liburuen ganako grina pizteko.

### 5. Toki egokietan irakurtzea.

Komenigarria da idazmahaiak alde batera uztea eta irudimena bultzatzen duten lekuak bilatzea. Liburutegiak ikasteko, irakurtzeko leku egokiak dira, baina ezin dugu ahaztu parkeak eta beste leku batzuk ere egokiak direla gurasoekin batera liburu batez gozatzeko.

### 6. Eguneroko ohitura.

Toki egokia eta eguneko ordu bat bilatzea, umeak irakur dezan.

Adibidez, txikienei gauero ipuin bat irakurtzea eguneroko irakurketa ohitura bihurtuko da, denborarekin.

### 7. Irakurketa konpartitu.

Seme-alabak handi egiten direnean, gurasoek irakurtzen ari diren liburuak eskaintzeko aukera dute. Adibidez, atsegina izango da abenturazko liburu bat irakurtzea eta haren pertsonaien ibilirez hitz eginez tarte atsegina pasatzea.

### 8. Gurasoak umeen eredu.

Adibidea da irakurketa bultzatzeko modurik onena. Haurra irakurlea izatea nahi izanez gero, gurasoak irakurle izan behar du, eredu izan behar du.

### 9. Liburutegiko bazkide izan.

Haurrak gurasoekin liburutegira joatea komeni da. Horrela, liburutegiarekin harremana izaten hasten dira txikitatik. Gainera, liburuak nola aukeratu irakasteko balio du.

### 10. Irakurketa digitalari ateak ireki.

Irakurketa eta mundu digitala batera doaz. Tablet eta mugikorrek helduekin batera liburu interaktiboak iritsi dira. Bertan, haurrek euren istorioak asma ditzakete. Gurasoak teknologia berrietara egokitzen saiatu behar dira, seme-alabei lagundu ahal izateko.

Bukatzean, esan beharra dago ikasleen irakurketa-prozesua bultzatzeko eta irakurzaletasuna transmititzeko garaian, eskolak ez ezik, familiak edo gurasoek ere izugarritzko garrantzia dutela.



# ELKARRIZKETA

**Jone Gomez  
eta Elene Molina,**

**Waterpoloko  
Euskal Seleksioan**

**Waterpoloko bi jokalaria elkarrizketatu ditugu oraingoan: Jone Gomez eta Elene Molina. Eibarko Urbat taldean jokatzen dute. Jonek 14 urte eta Elenek 13 izan arren, seniorretan jokatzen dute biek, baina Elene infantil mailan ere aritzen da. Oso ondo amaitu dute biek ligan.**

**Noiz hasi zineten waterpoloan jokatzen?**

**Jone:** 9-10 urterekin hasi nintzen.

**Elene:** Ni hamaika urterekin.

**Zergatik duzue gustuko waterpoloa?**

**Jone:** Beste kirolekin alderatuta ezberdina delako, ura eta baloia konbinatzen direlako eta gustuko dudalako.

**Elene:** Ezberdina delako eta ura asko gustatzen zaidalako.

**Zer taldeetan jokatzen duzue?**

**Jone eta Elene:** Urbat Waterpolo Taldean.

**Zein egunetan entrenatzen zarete?**

**Jone eta Elene:** Astearteetan, ostegunetan eta ostiraletan. Astearte eta ostegunetan 20:00etatik 22:00etara, eta ostiraletan, berriz, 19:15etik 21:15era.

**Gogorra egin zitzaizuen hasiera?**

**Jone eta Elene:** Hasieran ez geunden ohituta, baina ez da hainbesterako.

**Zein postutan jokatzen duzue?**

**Jone:** Postu guztietan.

**Elene:** 1, 2, 4 edo 5 postuan.

**Euskal Seleksioarekin jokatzen al duzue? Noiztik?**

**Jone eta Elene:** Bai, iaz Espainiako txapelketan parte hartu genuen, Euskadiko Seleksioan (infantiletan). Baina aurten, ni (Jone) kadeteetan nago; kategoriaz aldatu naute eta oraindik probak egiten ari naiz –oraingoz, aurrera jarraitzen dut–. Ni ere (Elene) probak egiten ari naiz, baina ez naute kategoriaz aldatu.

**Entzun dugu Elene kapitaina dela Euskal Seleksioan... zer moduz?**

**Elene:** Oraindik ez dut lan handirik egin, entrenamendu batzuk zuzendu besterik ez.

**Taldekiderekin zer moduz konpontzen zarete? Eta entrenatzailearekin?**

**Jone eta Elene:** Oso ondo.

**Partidek zenbat irauten dute?**

**Jone eta Elene:** Kategoriaren arabera izaten da hori, infantiletan edo txikiagoetan 6 parte dira, 4 minutukoak. Baina, guk seniorretan jokatzen dugunez, 4 zati izaten ditugu, 7 minutukoak.

**EGILEAK:** Maider Almortza, Maria Perez eta Janire Lopetegi

# INAUTERIAK

## INKESTA

Iritsi dira aurtengo inauteriak eta, beti bezala, 1. mailako ikasleei jakin-minez egin dizkiegu hainbat galdera. Erantzunak ikusita, argi geratu zaigu ikasleok oso gogoko dugula mozorrotzea eta ondo pasatzea:

- 1.- Gustuko dituzu inauteriak?
- 2.- Mozorrotzen al zara?
- 3.- Zer egunetan irtengo zara mozorrotuta?
- 4.- Zer mozorro aukeratu duzu?
- 5.- Zerbait berezia egiten duzu?
- 6.- Non ospatzen dituzu inauteriak, zure herrian ala beste nonbaiten?
- 7.- Zer da egun hauetan gehien gustatzen zaizuna?
- 8.- Nola lortzen dituzu mozorroak? Denda batean, interneten...?
- 9.- Kuadrillan mozorrotzen zarete? Guztiak berdin ala bakoitza bere mozorroarekin?
- 10.- Zein mozorro gustatzen zaizu?



**Borja  
Aires**

- 1.- Bai.
- 2.- Batzuetan.
- 3.- Inauteri egunean.
- 4.- Poliziaren mozorroa.
- 5.- Ez.
- 6.- Nire herrian.
- 7.- Dena.
- 8.- Internetez.
- 9.- Desberdin irteten gara.
- 10.- Poliziaren mozorroa.



**Ibai  
Unanue**

- 1.- Bai.
- 2.- Batzuetan.
- 3.- Inauterietan.
- 4.- Urteko mozorro ezberdinak.
- 5.- Ez.
- 6.- Nire herrian.
- 7.- Mozorrotzea.
- 8.- Internetez.
- 9.- Banaka, guztiak berdin ez.
- 10.- "One piece" gustuko dut.



**Danel  
Formariz**

- 1.- Bai.
- 2.- Bai.
- 3.- Kuadrillaren egunean.
- 4.- Gauza ezberdinak ditut.
- 5.- Ez.
- 6.- Nire herrian.
- 7.- Mozorrotzea.
- 8.- Guk egiten ditugu.
- 9.- Denok berdin.
- 10.- Ez dakit.



**Markel  
Villa**

- 1.- Bai.
- 2.- Bai.
- 3.- Larunbatean.
- 4.- Poliziaren mozorroa.
- 5.- Bai.
- 6.- Nire herrian.
- 7.- Mozorrotzea.
- 8.- Internetez erosi dut.
- 9.- Kuadrillan.
- 10.- Poliziarena.



**Unax  
Arrieta**

- 1.- Bai.
- 2.- Bai.
- 3.- Batzuetan.
- 4.- Edozein hartuko dut.
- 5.- Ez.
- 6.- Nire herrian.
- 7.- Mozorrotzea.
- 8.- Internetez.
- 9.- Kuadrilla osoa.
- 10.- Berdin zait.



**Beatriz  
Osa**

- 1.- Bai.
- 2.- Bai.
- 3.- Egun guztietan.
- 4.- Edozein mozorroarekin.
- 5.- Ez.
- 6.- Nire herrian.
- 7.- Mozorrotzea.
- 8.- Guk egiten ditugu.
- 9.- Kuadrilla osoa.
- 10.- Ez dakit.

EGILEAK: Eneko Arriola, Nerea Sanz, Intza Sudupe eta Eider Perez



# DENBORA-PASAK

## EZBERDINTASUNEN BILA



## TXISTEA

-Zer esaten du Ete-k limoi bat jaten duenean?  
"MI KA TZA"



## ASMAKIZUNAK

A)



B) \*Fu eta fu  
fu eta fu  
sua berpizten du.

ZER DA?

ASMAKIZUNEN ERANTZUNAK:

a)Eltza b)Halizea

laguntzaileak:



babesleak:



Debako Udala



prentsa tailerra 2016-2017

Urko Azkoitia  
Maria Perez  
Maite Ramos  
Nerea Sanz  
Intza Sudupe  
Eneko Arriola

Jone Gomez  
Janire Lopetegi  
Eider Perez  
Irene Ruiz  
Maider Almortza  
Ibai Bernal

Koordinatzailea: Tomas Ramos

# AGENDA

## OTSAILAK 24, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

## OTSAILAK 24-28

-**Inauteriak 2017.** Egitarau berezia antolatu du aurten ere Jai Batzordeak (ikus aldizkari honen kontrazala).

## OTSAILAK 25, LARUNBATA

-10:30. **Geoparkeko bisita gidatua Lasturko plazan.** Errota, taloak eta herri-jolasak familia osoarentzat. Ezinbestekoa da aurrez erreserba egitea. Informazio gehiagorako: [www.geoparkea.com](http://www.geoparkea.com).

## MARTXOAK 4, LARUNBATA

-10:15. **Txirrindulari lasterketa** (junior), Amaiak Bat Txirrindulari taldeak antolatuta.

## MARTXOAK 5, IGANDEA

-8:30. **Mendi irteera,** Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta. Ibilaldi neurtua.

## MARTXOAK 8, ASTEAZKENA

-**Emakumeen Nazioarteko Eguna.**

## MARTXOAK 11, LARUNBATA

-12:30. Bazkideen omenezko kontzertua eskainiko du Debako Musika Bandak, Santa Maria elizan.

## MARTXOAK 19, IGANDEA

-**Ipuin kontaketak.** Agirre jauregiko ispi-luen gelan. 17:00etan: 3-7 urteko haurrentzat/18:00etan: 7-12 urtekoentzat.

## MARTXOAK 25, LARUNBATA

-14:00. **Txirrindulari lasterketa:** Gipuzkoa Saria -emakumezkoen hiru kategoriak bi lasterketetan-.

## Literatur lehiaketa

**IX. Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa** abian dago, haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna eta sormena bultzatzeko helburuarekin. Horretarako hiru modalitate antolatu dira, haur eta gazteen adinaren arabera. Ipuin bat ilustratu beharko dute batzuek, ilustrazioak ipuin bilakatu besteei eta hirugarren modalitatean komikia edo bineta sortu beharko dute lehiakideek, "Euskal Herriaren historia" ardatz hartuta. Oinarriak: [www.elkar.eus](http://www.elkar.eus) atarian.



## Ikastaroak KZgunean

**KZguneak** goizeko ordutegia izango du martxoan (09:00-13:00). Hainbat ikastaro eskainiko dira: smartphoneak eta tabletak, bat-bateko mezularitza, Google aplikazioak, argazki ukitua Gimp erabiliz, Impress... Izena emateko edo informazio gehiagorako: kontsultatu [www.kzgunea.eus](http://www.kzgunea.eus) ataria edo deitu 943 02 36 29 telefono zenbakira.

## Mintzalaguna: zatoz zu ere!

Mintzalagunak astearteetan eta asteazkenetan biltzen dira eta martxoan dauden taldeetan parte hartzeko aukera dago. Harremanetarako: 943 19 13 83.



**Uzuri**  
optika audio  
[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

## ZURE ENTZUMENA ZAITZEN



Ostolaza, 7  
20820 DEBA  
Tel: 943192192

RPS: 183/12

## ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **martxoak 3, 4, 5, 13, 14, 15, 16.**

Burgoa Zuazo: **otsailak 27, 28.**  
**martxoak 1, 2, 17, 18, 19.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

## DEBAKO BOTIKAK

**ZALDUEGI: 669 262 201**  
**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**  
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: martxoak 4 eta 11

BURGOA ZUAZO: otsailak 25 eta martxoak 18

9:30 - 13:30



**G**

**JOXEAN GALDONA AIZPURUA**

HORTZ-SENDAGILEA  
Odontologia orokorra,  
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea  
Tel.: 943 192 819  
20820 Deba

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Aftariak: 20:00 / 23:00

**Bordatxo**  
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak



**50 URTE**

**BURU - ZURI**  
Taberna

- Ofartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauean tragoak

Lersundi Kalea, 23  
Tel.: 943 191 034  
20820 DEBA

kutxabank  
hemen  
eta orain **k**

**AUKERA**  
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

 API 447



**Hazirik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
tel.: 943 02 99 63  
e-mail: hazirik@gmail.com

**LENTZERIA**

**Azoka**

**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!

**Zuhatza**

943 191 383  
berriketan@zuhatza.com

**ITXAS GAIN**  
Taberna  
**ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

**Calbeton**

**JATETXEA**

**Agustín**  
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**L.A.**

**LARRAMENDI**  
**ANAIK, S.L.**

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Mobila: 670411786  
Mobila: 607453357  
e-mail: larranaiak@gmail.com

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**sasoi**  
iko

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: telarterapia (INDIVA)-drenaje linfaticoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiako@hotmail.com

# INAUTERIAK

## Deba 2017



DEBAKO UDALA



### OTSAILAK 24, ostirala

- 17:00: **KALEJIRA** Deba Musikaleko soinu taldearekin.
- 18:00: Kolore Anitzek antolatuta:
  - Haur hezkuntzako ikasleei zuzenduta **OKA JOLASA** (galdera-erantzunen jolasa).
  - Lehen hezkuntzako ikasleei zuzenduta **ALTXORRAREN BILA**.
  - Bukatzeko **TXOKOLATEA** eta **GAILETAK** haur guztientzat.

### OTSAILAK 25, larunbata

- Egunean zehar **MOZORRO LEHIAKETA** izango da, bi modalitatetan: banakoa eta taldekoa.
- 13:00: kalejira: **Debako Musika Banda** eta **Kalez Kale txistulariekin**.
- 17:30: Foruen Plazan:  
**ENBOLATUAK** eta **PONYAK UMEENTZAT** Debadarraken eskutik.
- 19:00: **BATUKADA BANDA GAZTEAREKIN**.
- 20:00: **DALTON'S TXARANGA**.
- 20:30: **MOZORRO LEHIAKETAREN SARI BANAKETA** Foruen plazan.

### OTSAILAK 26, igandea

- 13:00: Foruen plazan **OIHULARI KLOWN** taldea: **TROSTAN**.

### OTSAILAK 28, asteartea

- 17:00: Aldats pilota lekuan:  
**MOZORRO SHOW-a** eta **TXOKOLATADA** Gaztelekuak antolatuta.



*Jai Batzordeak ume,  
gazte eta helduei  
mozorratzeko gonbitea  
egiten dizue.*